

## k:

## Kultura

Ariane KAMIO | DONOSTIA

**Eizie-ren historiaz hitz egitea nahi nuke, ze helbururekin sortu zen.**

Orain dela 30 urte sortu zen, bazegoelako kezka bat itzultzaileok nolabaiteko babes behar genuelako. Garai hartan Martuteneko eskolan ematen ziren itzulpengintza ikastaroak. Han zebiltzan Josu Zabaleta, Xabier Mendiguren, Lurdes Auzmendi... Horiek erabaki zuten sortu behar zela elkarte bat. Ordurako jende dezente ari ginen lanean gure kasa, etxean. Eta babes bat behar genuen.

Hasieratik ehun bat kide bildu ginen eta gaur egun ia 400 gara. Eta sortu zen elkarri babesa emateko eta itzulpengintza lanbide gisa duintzeko eta gizartean ere txertatzeko eta bere balioa izateko ogibide gisa. Literatur itzulpengintza ere sustatzeko sortu zen. ETB hasia zen, aritzen ginen filmak itzultzen eta egokitzen. Itzulpengintza hasi zen bere adarretatik zabalitzen eta elkarte sortu zen horretan laguntzeko eta erreferentzia izateko Euskal Herriko itzultzaile, interprete eta zuzentzaileentzat.

Literaturan, ikus-entzunezkoetan, administrazioan, epaitegietan... eremu desberdinetan lan egiten dutenak biltzen gara elkartearen. Norbanakoak eta enpresak gaude bertan. Kontua da legeak ez duela baimenik ematen elkargoa sortzeko. Beraz, ezin ditugu elkargo profesional batean egiten diren lanak egin.

**Ze desberdintasun izango luke elkargo bat izateak?**

Horrek legearen arabera baldintza batzuk izan ditzake. Elkargoek badituzte lege aldetik babes batzuk. Guk adibidez elkartetik ezin ditugu tarifak gomendatu, elkarte bat baino ez garelako.

**Beste estatus bat izango zenukete.**

Bai. Gurea beste estatus apalago bat da. Urte hauetan guztietan badugu literaturaren alorrean bilduma garrantzitsu bat, Literatur Unibertsalarena, eta itzuli dira 170 lan baino gehiago. Literatura unibertsaleko obra nagusiak itzuli dira euskarara. Hori litzateke Eizie-ren erakusgarri handienetako bat, baina horrez gain, komunikazioa lantzen dugu halaber, programak egiten ditugu itzulpengintzaren inguruan, bazkideei

**IDOIA GILLENEA**  
EIZIE-KO LEHENDAKARIA

Urtebete egin du Idoia Gilleneak Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteko (Eizie) lehendakaritzan. Azken hiru hamarkadatan euskarazko itzulpengintzak izan duen garapena aztertu du elkarriketa honetan, eta egoera prekarioari ere eskaini dio lekua. Lanbidea duintzearen beharraz mintzo da.

## «Traizioa eta fideltasunik eza dira gure topikoak baina itzultzailearik gabe munduak ez luke funtzionatuko»

**NOR DA NOR**

«Euskal Herrian egon diren eta dauden itzultzaile, interprete eta zuzentzaile guztien datu basea da Nor Da Nor; haiek egindako lan guztiak bilduko dituen datu base irekia izango da»

**DUINDU**

«Itzultzaile autonomo asko dago eta babesgabe aurkitzen da momentu batzuetan. Eta gure ogibidea duindu behar da. Elkargo bat izateak horretan gehiago lagunduko liguke»



laguntza ematen diegu behar dutenean...

**Urtebete daramazu lehendakaritzan. Zenbat urte egin dituzu Eizie-n?**

Hasieratik nago. 30 urte.

**Beraz, 30 urteotako garapena ikusiko zenuen.**

Bai. Itzulpengintza asko aldatu da garai haietatik. Internetik ez zegoen. Pentsa nola ibiltzen ginen! Liburuekin, paperezko hiz-

tegiekin. Digitalizazioa funtsezkoa izan da guretzat. Eta lan egiteko moduak ere aldatu dira. Lehen asko ziren etxean, besteekin inolako harremanik gabe lan egiten zuten itzultzaileak. Baina gaur egun askoz ere lotuagoak gaude bata bestearekin.

Hor badago baita ere Itzul posta zerrenda, orain hogeitau urte beteko dituen. Ez dakit ezagutzen duzun...

**Ez, ez dut ezagutzen.**

Eizie-k sustatuko posta zerrenda bat da, edonork erabil dezakeena. Izena emanez gero, hizkuntzarekiko edozein zalantza galde dezakezu. Eta ez dugu soilik itzultzaileek erabiltzen, baizik hizkuntzarekin harremana duen edonork.

Beste proiektu garrantzitsu bat, itzulpengintzari begira, Nor Da Nor datu basea da, orain lantzen ari garena. Euskal Herrian egon diren eta dauden itzultzaile, interprete eta zuzentzaile



guztien datu basea eta haiek egindako lan guztiena bilduko ditu. Datu base handi bat, itzul-pengintza osoa biltzen duena. Horretarako laguntzak behar dira, eta beti ibiltzen gara diruz motz, baina Nor Da Nor oso garrantzitsua da edonorentzako.

#### Datu base ireki bat?

Bai, edonoren kontsultarako. Datu base ikaragarria da. Zeren itzulpen piloa egin da azken 30 urteetan. Hiru hamarkadotan euskararen normalizazioarekin areagotu egin da eta duela hiru hamarkada ez zeukan ikusgarritasuna lortzen ari da orain. Eta iruditzen zait euskarak aurrera egin duela neurri batean itzultzaileok egin dugun ekarpenagatik.

#### Helbururen bat jarri diozu zure buruari lehendakari gisa?

Ni itzultzaile autonomoa naiz eta beti izan naiz autonomoa. Nahi nuke lanbidearen baldintzak egonkortzea. Tarifa aldetik ez gabiltza oso fin alde horretatik. Krisia dela eta ez dela, batzuetan tarifak oso apalak dira, eta lehiaketetan ere askotan ez dira baldintza duinak mantentzen.

#### Beti lotu izan da itzulpena prekaritatearekin, ezta?

Bai, hala da. Literaturan ere nahiko prekario egiten da lan. Badakigu ez dela asko saltzen, baina lana handia da. Eta nahi nukeena da lagundu lan baldintzak duintzen, batez ere Gasteizen gradua dagoenetik urtean itzultzaile eta interprete gehiago ateratzen direlako merkatura. Urtero dago promozio bat. Itzultzaile autonomo asko dago eta babesgabe aurkitzen da momentu batzuetan. Eta gure ogibidea duindu behar da. Elkargo bat izateak horretan gehiago lagunduko liguke. Guk elkarte gisa ezin dugu ezer esan.

#### Zuek zarete aterki moduko bat.

Hori da, babesa ematen diegu ahal dugun neurriraino bazkideei.

#### Beste elkarte batzuekin harremana duzue? Euskal Idazleen Elkarte, adibidez?

Bai. Galtzagorri, Idazleen Elkarte eta Editoreen Elkarte gure solairu berean daude. Harreman zuzena dugu haiekin. Lau elkarte gaude leku berean. Badago adibidez programa bat idazleak eskoletara gerturatu dituen eta guk gauza bera egin dugu itzultzaileekin beraie galdetuta, itzultzaileen lanbidea ezagutzera emateko ikastetxeetan. Tailerrak antolatzen ditugu gaztetxoekin, adibidez. Saiatzen gara itzultzaileen lanari ikusgarritasuna ematen, adibidez,



Juan Carlos RUIZ | FOKU

#### IKUSGARRITASUNA

«Saiatzen gara itzultzaileen lanari ikusgarritasuna ematen, adibidez, itzultzailea irakurle taldeetara eramaten»

#### MORROIAK

«Beti kontsideratzen da idazlea gainean dagoela eta itzultzaileak morroiak garela. Zubi lana egiten dugu, bai. Jende asko ez da konturatu ere egiten irakurtzen dituen lanetako asko itzuliak direla. Sortu dugun altxorra ikaragarria da»

itzultzailea irakurle taldeetara eramaten.

**Egunkari honetan argitaratutako elkarrizketa batean, Anjel Lertxundik esaten zuen itzultzaileen lana nola ez dagoen batere prestigioatua eta nola euskarazkoak ez diren idazle askoren lanak ekartzen dituzten itzultzaileek eta nola dagoen desprestigioatua.**

Beti kontsideratzen da idazlea gainean dagoela eta itzultzaileak morroiak garela. Zubi lana egiten dugu, bai. Jende asko ez da konturatu ere egiten irakurtzen dituen lanetako asko itzuliak direla. Sortu dugun altxorra ikaragarria da. Eta euskara nola landu den, nola normalizatu den, nola bultzatu dugun normalizazio hori. Eta halere, bigarren mailako zerbitzari lan bat bezala ikusten da, ez dugulako guk sortzen. Sortzaileari sekulako balioa ematen zaio. Eta itzultzaileak tresnak jartzea lan hori ezagutzera emateko izugarria da.

Orain hogeita hamar urte nik nire etxean lan egiten nuen, ia inor ezagutu gabe, eta inolako indarririk gabe. Gero badaude topikoak, traizioa egiten diogula obrari, ez garela fidelak... Baina egia dena da itzultzaileek gabe munduak ez lukeela funtzionatuko. Eta horretarako balio du gure elkarteak, prestigioa emateko gure lanari.

## Desigualdad

recida en un barrio obrero de la periferia de Sevilla, la escritora Sara Mesa (Madrid, 1976) –autora de joyitas como “Cicatriz” o “Mala letra”– recuerda que de su clase de cuarenta alumnos solo dos fueron a la universidad, mientras que asciende al 70 u 80% los que acceden a estudios universitarios desde colegios privados. «Nos quejamos porque la gente no se acerca a la cultura, pero es que la inmensa mayoría de los que lo hacen parten de un cierto nivel socioeconómico; a ver si el problema va a estar en la desigualdad social, creciente además. La cultura tiene aún un componente elitista; no hay conciencia de que tiene que llegar ahí, a los barrios del extraradio». Antonio Bonfim, alias Nem da Rocinha, y nacido también en el 76, cumple una condena a 96 años en una prisión de máxima seguridad brasileña. El que durante años fuera el amo del narcotráfico en la favela más peligrosa no solo de Río sino de Latinoamérica, no se arrepiente: las autoridades con el apoyo de los grandes medios y de una policía corrupta usan al traficante de la favela, negro y pobre, como chivo expiatorio cuando es solo el último eslabón de un engranaje diabólico. «No les interesa en absoluto acabar con el problema. Sería muy sencillo: invertir en educación y en políticas sociales, y legalizar las drogas para sacarle todo el poder al traficante; pero antes es preciso hablar en las escuelas, enseñar desde muy pronto lo que son las drogas», ha afirmado este atípico recluso que dedica gran parte de su tiempo a leer, y que cuenta que el día que salga «quiero aprovechar la vida, ir a la playa y al teatro».

Nos quejamos porque la gente no se acerca a la cultura, pero es que la inmensa mayoría de los que lo hacen parten de un cierto nivel socioeconómico.



Josu MONTERO  
Escritor y crítico

## Tres muestras del Guggenheim Bilbao, entre las 10 de más éxito del mundo

GARA | BILBO

Tres de las exposiciones temporales programadas por el Museo Guggenheim Bilbao en 2017, año en el que celebró su vigésimo aniversario, figuran entre las 10 que cosecharon mayor éxito de público en todo el mundo el año pasado. Así figura en el listado de exposiciones más visitadas en el ámbito internacional que elabora cada año la prestigiosa revista “The Art Newspaper”, según informó ayer el propio museo. Según este listado, las exposiciones

“Ken Jacobs: Los invitados”; “Bill Viola: retrospectiva”, y “George Baselitz. Los héroes” ocupan, respectivamente, el séptimo, octavo y noveno puesto del Top 10, superando todas ellas los 6.000 visitantes diarios, mientras que “Signac, Redon, Toulouse-Lautrec y sus contemporáneos” ocupa el puesto 18. Guggenheim Bilbao recuerda que 2017 fue, con 1.322.611 visitantes, el ejercicio de mayor éxito de visitantes de la reciente historia del Museo, superando el primer año completo de apertura.